

HIRI BERRONERATZEAREN SAILAK 6 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOKO AURREKONTUA IZANGO DU, 2023AN BILBON BIRGAITZE-LANAK EGITEKO LAGUNTZETARAKO

- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 4 milioi euro inguruko diru-ekarpena egingo dio Surbisari, Next Funtsetatik, uriko 670 etxebizitza energetikoki birgaitzeko.
- Gainera, 363.000 euro izango ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren Herriak Egiten Funts Ezohikotik, jabetza pribatuko eraikinak eta etxebizitzak energetikoki birgaitzeko.
- Horrez gain, Surbisak esku hartzen duen gunetan hiriak berroneratzeko aurrekontua gehitu behar zaio horri, zeina datorren urtean 1.520.000 eurokoa izango baita.
- Laguntza guztiak, beraz, Surbisaren bidez izapidetuko dira, Bilboko eraikinen, etxebizitzaren eta lokalen birgaitzea sustatzen duen udal sozietatearen bidez.

(Bilbon, 2022ko abenduaren 1ean). Hiri Berroneratzearen Sailak 6 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua izango du birgaitze-lanetarako laguntzetarako 2023an. Era horretan, Sailak, aurrekontuaren, auzorik baztertuenetan, jasangarritasunaren, energia-eraginkortasunaren eta gizarte-kohesioaren alde egingo du; halaber, inguru eta eraikin-multzo bakanak hobetuko ditu, ondare eraikia segurua, irisgarria eta eraginkorra izan dadin eta kalitatezko etxebizitzak eskaintzearen.

Aurrekontu horretatik guztitik, 4 milioi euro Euskadiko eraikinak eta etxebizitzak energiaren aldetik birgai daitezen sustatzeko Next Generation laguntzetatik datoz, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren bitartez. Laguntza horiek, hala, Surbisa udal sozietateak kudeatuko ditu. Eta Bilbon leihatila bakarrarekin egingo du hori. "Bilbon lau milioi euro inguruko diru-ekarpena jasoko dugu, 670 etxebizitza energetikoki birgaitzeko. Dirulaguntza horien bidez, trantsizio berdea, deskarbonizazioa, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien hedapena bultzatu nahi ditugu, eraikitako parkea birgaitzeko eta hobetzeko jarduketan bidez" halaxe azaldu du Ivan Calderónek, Bilboko Udaleko Hiri Berroneratzearen zinegotzi eta Surbisako presidentea.

Udal sozietateak hiru programa kudeatuko ditu, eta bilbotarrak programa horietara bildu ahal izango dira: etxebizitzaren hobekuntza energetikoa, eraikinen hobekuntza energetikoa eta Eraikinaren Liburua egiteko eta/edo eraikinak birgaitzeko proiektu teknikoak idazteko dirulaguntzak.

Gainera, Hiri Berroneratzearen Sailak 363.000 euro izango ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren Herriak Egiten Funts Ezohikotik, jabetza pribatuko eraikinak eta etxebizitzak energetikoki birgaitzeko. Ekarpen honekin, dirulaguntzak eskainiko ditu "Lerro Berdea A+" Programa abian jartzeko.

Lerro Berde berriak pizgarri ekonomiko eta teknikoak emango dizkie eraikinen jabe-erkidegoei eta etxebizitzentzako jabeek, energia-hobekuntzako obra txikiak egin ditzaten eta euren eraikinen dokumentu teknikoak atera ditzaten (ziurtagiri nahiz auditoretza energetikoa). Era horretan, aukera izango dute aholkua eta ezagutza biltzeko egiteko erabakiko diren birgaitze-obren bidez energia-eraginkortasuna eta aurrezpena hobetzeko ezaugarrien, defiziten eta aukeren gainean.

Laguntza motak lau bloketan banatzen dira:

1. Energia-efizientziako ziurtagiria idaztea, jabetza pribatuko bizitegi-eraikinetan.
2. Energia-auditoretzako ziurtagiria idaztea, jabetza pribatuko bizitegi-eraikinetan.
3. Jabetza pribatuko etxebizitzetan energia aurrezten zuzenean eragiten duten esku-hartze txikiak egitea. Esate baterako, zoruak eta sabaiak isolatzea.
4. Energia aurrezten zuzenean eragiten duten esku-hartze txikiak egitea eraikinetan. Esaterako, eraikinean isolamendu termiko partzialeko obrak egitea, edo eraginkorrak ez diren instalazio termikoak ordeztzea.

Eta hauek dira laguntzen zenbatekoak:

1. Eraikinen energia-efizientziako ziurtagiriak idazteko: 400 €, gehi 20 €/etxebizitza. Gehienez, 2.000 €/jarduketa.
2. Energia-efizientziako auditoretzak idazteko: 400 €, gehi 40 €/etxebizitza. Gehienez, 3.000 €/jarduketa.
3. Energia-hobekuntzako obra txikiak egiteko: % 50eko dirulaguntza. Gehienez, 15.000 €/eraikina eta 1.500 €/etxebizitza.

Babesten diren jarduketak 2023ko urtarrilaren 1etik azaroaren 15era egin beharko dira (hau da, eskaerak egiteko epea amaitzen den arte). Halere, eraikinetan obra txikiak eginez gero, obrak amaitzeko epea 2023ko urtarrilaren 31ra arte luzatuko da. Laguntzak eskatu ahaliko dira aurrekontu-kontsignazioa amaitu arte edo 2023ko azaroaren 15era arte.

Dirulaguntzen eskaerak eta haiekin batera aurkeztu beharreko agiriak honela aurkeztu ahal izango dira: posta elektronikoa bidez, surbisaverde@surb.bilbao.eus helbidean, edo aurrez aurre, Surbisaren bulegoetan, hitzordua eskatuta helbide elektronikoa honetan: surbisarverde@surb.bilbao.eus, edo 944 159 955 telefonoan.

Energia-efizientzia hobetzeko eta aurrezteko plan hau Bilboren Agiriaren balioetan txertatzen da; zehazki, ingurumen-jasangarritasunari, konpromisoari eta erantzunkidetasunari, eta osasunari dagokienez. Modu berean, bat dator garapen jasangarriko helburuekin; honako hauekin, hain zuzen ere: energia-pobrezia-rekin amaitzea, osasuna eta ongizatea, energia ez-garestia eta kutsadurarik eza, hiri eta komunitate jasangarriak, klimaren aldeko ekintza.

SURBISAK ESKU HARTZEN DUEN GUNEETARAKO LAGUNTZAK

Horrez gain, kontuan hartu behar dira Hiri Berroneratzearen Sailaren bidez Surbisak berak esku hartzen duen guneetarako kudeatzen dituen laguntzak. Aurrekontua, 1.520.000 eurokoa, zazpi laguntza-lerrotan banatuko da. Hona hemen zeintzuk:

- **1. Lerroa: egoera babesgabeen dauden familiak laguntzea:** urtean 21.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dauzkaten familientzat.
- **2. Lerroa: obretarako laguntzak ematea segurtasunagatik:** txarto zainduta dauden eraikinek pertsonentzako ekar ditzaketen arriskuak ezabatzeko edo gutxitzeko, eraikinen egitura eta eraikuntza sendotuz.
- **3. Lerroa: irisgarritasuna hobetzeko eta igogailuak ipintzeko:** adinagatik edo dibertsitate funtzionalagatik mugitzeko zailtasuna duten pertsonak beren auzoan edo etxebizitzan gera daitezen, erroturik eta giza harremani eutsiz.
- **4. Lerroa: proiektu estrategikoak,** leku berezietan kokatuta dauden eraikin multzoetan edo eraikinetan esku har dadin sustatzearen, hala nola plazetan, edo ondarea oneratzearren energia eraginkortasunari edo hobekuntzari dagokionez.
- **5. Lerroa: beheko solairuetako lokalen irudia hobetzea:** lokalen kanpoko irudia egokitzea eta berritzea da helburua, erabiltzen ari diren lokalak nahiz itxita daudenak.
- **6. Lerroa: gizarte-kohesioa:** bizi diren eraikinen birgaitze-obretako komunitate-gastuei aurre egiteko zailtasuna duten pertsonentzako eta familientzako laguntzak. Xedea da kolektibo baztertuenek egokitasunez bizitzeko modua izan dezatela eta diru baliabide gehiago dauzkaten pertsonekin batera bizi ahal izan daitezela, kanporatuak izan beharrik gabe komunitatearentzako eta egoiliarrentzako interes orokorrekoak diren obrei ezin aurre egiteagatik.
- **7. Lerroa, espazioen eraldaketa eta berrerabilpen berderako:** jabetza pribatuko hiri-espazioetan eta higiezinetan ingurumena hobetzeko jarduketak egitea, abandonu edo utzikeria egoeratik lehengoratzeko, berrerabiltzeko eta eraldaketa "berderako", erabilera pribatu partikularraz harago joateko helburuarekin.

Surbisak esku-hartzen duen guneak hauek dira: Zazpi Kaleak, Gurutze auzoa, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Irala, Olabeaga, Zorrotzaurre eta Zazpilanda. Udal sozietateak, bestalde, laguntza tekniko, juridiko eta soziala ematen du, laguntzak izapidetzen ditu leihatila bakar moduan, eta badauzka hirigintza arloko eskumenak obretarako lizentzien, eraikinen araubidearen eta besteren gainean.

Gainera, programa hauek bat datoz osasunarekin eta ongizatearekin lotutako garapen jasangarriaren helburuekin, eta hiriak integratzaileagoak, seguruagoak, erresilienteagoak eta iraunkorragoak izatea bilatzen dute, Bilbao Balioen Hiria agirian jasotako balore propioak diren neurrian.

HIRI BERRONERATZEAREN SAILA ETA SURBISA

Hiri Berroneratzearen Sailak urian esku-hartze integrala gauzatzea sustatzen du; hau da, hiri-, gizarte- eta ingurumen-gaiei erantzuten dien esku-hartzea. Horrek esan nahi du uria

berroneratzeaz gain, beste gai batzuk ere lantzen dituela; hala nola, mugikortasuna, espazio publikoa, ekonomia suspertzea, gizarte-kohesioa, hezkuntza, kultura, enplegua eta abar.

Bestalde, SURBISA udal-sozietate bat da, Bilboko eraikin, etxebizitza eta lokaletan jabeek egin beharreko birgaitze-lanak sustatzen dituena. Udal-sozietateak esku hartzen duen eremuaren barruan daude Zazpikaleak, Gurutze auzoa, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Irala, Olabeaga eta Zazpilanda. Surbisak helburu bi ditu: alde batetik, ondare eraikia segurua, irisgarria eta efizientea izatea eta kalitatezko etxebizitzak eskaintzea, eta, bestetik, bere eragin-eremuetan bizikidetzaz erraztea. Surbisaren jardunaren helburua da bizi-kalitatea bermatzea, jarduera sustatzea, eta urira itzuliko den aberastasun ekonomikoa sortzea.

SARE SOZIALAK:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)

EL ÁREA DE REGENERACIÓN URBANA DISPONE DE MÁS DE 6 MILLONES DE EUROS DE PRESUPUESTO PARA AYUDAS DE REHABILITACIÓN EN BILBAO EN 2023

- **El Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco aportará a Surbisa 4 millones de euros procedentes de los Fondos Next con el objetivo de rehabilitar energéticamente 670 viviendas de la Villa.**
 - **Además, contará con 363.000 euros del Fondo extraordinario Herriak Egiten de la Diputación Foral de Bizkaia para la rehabilitación energética de edificios y viviendas de propiedad privada.**
 - **A esto hay que sumar el presupuesto para la regeneración urbana en las zonas de intervención de Surbisa que el año próximo ascenderá a 1.520.000 euros.**
 - **Todas las ayudas se tramitarán a través de Surbisa, la sociedad municipal que impulsa la rehabilitación de edificios, viviendas y locales de Bilbao.**

(Bilbao, a 1 de diciembre de 2022). El Área de Regeneración Urbana dispone de más de 6 millones de euros de presupuesto para ayudas de rehabilitación en 2023. De esta forma, el Área apuesta un año más por la rehabilitación, la sostenibilidad, la eficiencia energética y por la cohesión social de los barrios más desfavorecidos, así como la mejora de entornos y conjuntos de edificios singulares para que el patrimonio edificado sea seguro, accesible, eficiente y ofrezca viviendas de calidad.

De todo el presupuesto, 4 millones de euros proceden de las ayudas Next Generation para incentivar la rehabilitación energética de edificios y viviendas en Euskadi a través del Departamento de Vivienda del Gobierno. La encargada de gestionar estas ayudas será la sociedad municipal Surbisa. Lo hará como ventanilla única en Bilbao. “La primera aportación de fondos será de cuatro millones de euros con el objetivo de rehabilitar energéticamente 670 viviendas. Con estas subvenciones buscaremos impulsar la transición verde, la descarbonización, la eficiencia energética y el despliegue de las energías renovables con actuaciones de rehabilitación y mejora de nuestro parque edificado”, explica Ivan Calderón, Concejal de Regeneración Urbana del Ayuntamiento de Bilbao y Presidente de Surbisa.

La sociedad municipal gestionará tres programas a los que se podrán acoger los bilbainos y bilbainas: subvenciones a la mejora energética de viviendas; a la mejora energética de edificios; a la elaboración del Libro del Edificio; y/o a la redacción de proyectos técnicos de rehabilitación de edificios.

Además, el Área de Regeneración Urbana contará con 363.000 euros del Fondo extraordinario Herriak Egiten de la Diputación Foral de Bizkaia para la rehabilitación energética de edificios y viviendas de propiedad privada. Con esta aportación se ofrecerán ayudas económicas para la puesta en marcha del Programa ‘Línea Verde A+’.

La nueva Línea Verde incentivaré económica y técnicamente a las Comunidades Propietarias de edificios y a propietarios de viviendas para que contraten la realización tanto de pequeñas intervenciones de mejora de energética como de los documentos técnicos, bien el certificado o la auditoría energética, de sus edificios. De esta forma, podrán contar con el asesoramiento y conocimiento de las características, déficits y oportunidades para mejorar las condiciones de eficiencia y ahorro energético con las obras de rehabilitación que se acuerden realizar.

Los tipos de ayuda se dividen en cuatro bloques:

1. Redacción de certificado de eficiencia energética en edificios residenciales existentes de propiedad privada.
2. Redacción de auditoría energética en edificios residenciales existentes de propiedad privada.
3. Realización de pequeñas intervenciones que tengan impacto directo en el ahorro energético de las viviendas de propiedad privada. Por ejemplo, el aislamiento de suelos y techos.
4. Realización de pequeñas intervenciones en edificios que tengan impacto directo en el ahorro energético. Por ejemplo, realizar obras de aislamiento térmico parcial en el edificio o sustitución de instalaciones térmicas no eficientes.

Asimismo, la cuantía de las ayudas son las siguientes:

1. Para redacción de Certificados de Eficiencia energética de edificios: 400€, más 20€/vivienda, con un máximo de 2.000€/actuación.
2. Para la redacción de Auditorías de eficiencia energética: 400€, más 40€ por vivienda, con un máximo de 3.000€/actuación.
3. Para las pequeñas obras de mejora energética: 50% de subvención, con un máximo de 15.000€/edificio y 1.500€/vivienda.

Las actuaciones que se protegen deben estar ejecutadas desde el 1 de enero del 2022 al 15 noviembre de 2023 fecha en la que finaliza el plazo de solicitud, si bien, en el caso de pequeñas obras sin ejecutar en edificios, el plazo para finalizar las obras se fija hasta el 31 julio 2023. Las ayudas se podrán solicitar hasta la finalización de la consignación presupuestaria o hasta el 15 de noviembre de 2023.

Las solicitudes de subvención, junto con la documentación necesaria, se presentarán bien a través del correo electrónico surbisaverde@surb.bilbao.eus o bien presencialmente en las oficinas de Surbisa con cita previa a través de la dirección de mail surbisaverde@surb.bilbao.eus o en el teléfono 944 159 955.

Este Plan de ahorro y mejora de la eficiencia energética se integra en los valores de la Carta de Bilbao, concretamente en lo relativo a la Sostenibilidad Medio Ambiental, al del Compromiso y Corresponsabilidad así como al de la Salud. Asimismo, está alineado con los Objetivos de Desarrollo Sostenible como son el Fin de la Pobreza Energética, Salud y

Bienestar, Energía asequible y no contaminación, Ciudades y comunidades sostenibles, Acción por el Clima.

AYUDAS EN LAS ZONAS DE INTERVENCIÓN DE SURBISA

A todo esto hay que sumar las ayudas que a través del Área de Regeneración Urbana, Surbisa gestiona para sus zonas de intervención. El presupuesto de 1.520.000 euros se distribuirá a través de siete líneas de apoyo son las siguientes:

- **Línea 1, de Apoyo a situaciones de vulnerabilidad:** dirigido a familias con ingresos anuales inferiores a 21.000€ para facilitarles la financiación de las obras.
- **Línea 2, de Apoyo a las obras por razón de seguridad:** con el fin de eliminar o reducir el riesgo sobre las personas por causa de los edificios en mal estado de conservación se persigue la consolidación estructural y constructiva de las edificaciones.
- **Línea 3, de Mejora de las condiciones de accesibilidad e instalación de ascensores:** apostando por mantener a las personas con dificultad de movilidad, ya sea por edad o por diversidad funcional, en su barrio, en su vivienda, manteniendo el arraigo y relaciones humanas.
- **Línea 4, Proyectos Estratégicos:** para propiciar la intervención en grupos edificatorios situados en lugares singulares, como plazas o de recuperación patrimonial de edificios de valor cultural y de en la mejora de la eficiencia energética
- **Línea 5, de Mejora de la imagen urbana de los locales comerciales en planta baja:** con el fin de favorecer la adecuación y modernización del aspecto exterior de los locales, tanto en uso como cerrados.
- **Línea 6, para Cohesión social: ayudas dirigidas a personas y familias con dificultades para hacer frente a los gastos comunitarios** de las obras de rehabilitación de edificios donde residen. Así, se busca que los colectivos más desfavorecidos puedan vivir en condiciones adecuadas y convivir con personas de mayores recursos económicos sin que se vean expulsadas por no poder hacer frente a obras de interés general para la comunidad y para sus residentes.
- **Línea 7, para la Transformación y reutilización verde de espacios urbanos e inmuebles de propiedad privada** en los que realizar intervenciones de mejora medioambiental con las que regenerar su estado de abandono o desuso para su reutilización y transformación 'verde', con un destino de uso más allá del privado particular.

Las áreas de intervención de Surbisa son Casco Viejo, Bº De la Cruz, Bilbao La Vieja, Bº Ferroviarios, Irala, Olabeaga, Zorrotzaurre y Zazpilanda. La sociedad municipal presta también apoyo técnico, jurídico y social, tramita ayudas como ventanilla única y tiene competencias urbanísticas en material de licencias de obra, régimen edificatorio etc.

Así mismo, todos los programas están alineados con los Objetivos de Desarrollo Sostenible en relación a la Salud y Bienestar, a la vez que se busca lograr que las ciudades sean más inclusivas, seguras, resilientes y sostenibles, como valores propios de la ciudad, recogidos en el Bilbao Balioen Hiria.

ACERCA DEL ÁREA DE REGENERACIÓN URBANA Y SURBISA

El Área de Regeneración Urbana promueve una intervención integral en la ciudad, es decir, atendiendo cuestiones urbanas, sociales y medio ambientales. Esto implica que, además de la rehabilitación urbana, sean relevantes también cuestiones como la movilidad, espacio público, reactivación económica, cohesión social, educación, cultura, empleo etc.

Por su parte, SURBISA es la sociedad municipal que incentiva la rehabilitación de edificios, viviendas y locales de Bilbao que deben realizar sus propietarios/as. Sus áreas de intervención son Casco Viejo, Bº De la Cruz, Bilbao La Vieja, Bº Ferroviarios, Irala, Olabeaga y Zazpilanda. Surbisa tiene como doble objetivo que el patrimonio edificado sea seguro, accesible, eficiente y ofrezca viviendas de calidad, así como facilitar la convivencia en sus áreas de influencia. El trabajo de Surbisa busca calidad de vida y generar actividad y crear riqueza económica que revierta en la ciudad.

REDES SOCIALES:

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)